

INDUSTRIA-BERRIKUNTZA AUTONOMIA ESTRATEGIKO IREKI BATERAKO, INOR ATZEAN UTZI GABE

Posted on 02/11/2023 by Naider

Industria-berrikuntza funtsezkoa da teknologia kritikoak garatzeko, ekonomia zirkularra sustatzeko eta mendekotasun teknologiko estrategikoak eta hornidura-katekoak murrizteko. Erronka eta premia horien testuinguruan, "Autonomia Estrategikoa" kontzeptua behin eta berriz erabiltzen da EBko politiketan, eta "irekia" adjektiboa gehitzen da, Europar proiektuak lankidetzan aldeaniztuna nahi duela azpimarratzeko: *Open Strategic Autonomy* edo OSA

[CONCORDi 2023](#), enpresen I+G+Bri buruzko foro europarra, Sevillan egin zen urriaren 24tik 26ra bitartean, eta [Ikerketa Zentro Bateratuaren lan-dokumentuak](#) autonomia hori lortzeko Europaren erronkak kokatzen ditu.



